

## **BEZEROEKIKO HARREMANAK**

Bezeroak gurekin harremanetan jartzeko, denda-bulego fisikoaz gain, gurekin kontaktatzeko hainbat bide izango dituzte webgunean. Lehenik eta behin posta elektronikoa izango dugu txertatuta eta uneoro izango da martxan. Telefono bat ere jarriko dugu, baina hau laneko ordutegian soilik izango da erabilgarria. Gainera, gaur egun ohikoa den moduan sare sozialen bidez ere gure berri izango dute, komunikabide bat gehiago izateaz gain.

Beti gutako bat egongo da telefonoko edo ordenagailuko pantailaren beste aldean, bezeroen eskariei eta kezkei aurre egiteko; beraz ez dugu zerbitzu automatizaturik erabiliko guretzat garrantzitsuenak bezeroaren hobebeharra eta egonkortasuna direlako.

Gehien bat Lier arduratuko da sare sozialez, baina beste hiru kideak ere prest egongo lirateke momentu oro, larrialdiren bat balego batez ere bezeroen galderei, eskakizunei edota eskaerei erantzun azkar eta pertsonalizatu bat emateko.

Hau gutxi balitz webgunean bertan erreklamazio gune bat egongo da, inongo kexarik ala iradokizunik egongo balitz bertan idazteko.

Bezeroenganako hurbiltasuna areagotzeko beti egongo gara prest hainbat ekintza publikotan edota ferietan gure ekarpena egiteko; ekimen ezberdinak babestuz adibidez eta hainbat ferietan gure gunea ezarriz pertsona gehiagorengana iristeko.